



Nagusia 4
48970 BASAURI
Tel.: 94 466 64 10
Faxa: 94 466 64 09
e-posta: rcia_mayores@basauri.eus

IRAGARKIA

ERIZAINZAKO LAGUNTAILEEN LAN-POLTSA ERATZEA, BASAURIKO UDALAREN «ETXE MAITIA» ADINEKOEN EGOITZAN ALDI BATERAKO BEHARRIZANEI AURRE EGITEKO

«Etxe Maitia» adinekoen egoitzako (Basauriko Udalaren erakunde autonomoa) Lehendakaritzak Ebazpena eman zuen 2018ko urriaren 5ean. Bertan, erizaintzako laguntzaileen lan-poltsa eratzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egin zuen, aldi baterako langile-beharrizanei aurre egiteko; eta, bestalde, deialdi horri zegozkion oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, erakunde autonomoko iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean (www.basauri.eus) argitartzeko agindua eman zuen. Horrenbestez, zera

JAKINARAZTEN DUT:

2018ko urriaren 18an, 08:30ean, zabaldu egingo dela epea Etxe Maitia Udal Zentroan sor daitezkeen aldi baterako beharrizanei aurre egiteko erizaintzako laguntzaileen lan-poltsarako oposizio-lehiaketan izena emateko. Epe horrek 20 egun naturaleko iraupena izango du, eta, beraz, zabalik egongo da **2018ko azaroaren 6ra arte, 19:30era arte**, hain zuzen ere. Deialdian izena emateko eskabideak Basauriko Udaleko HAZen (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua) aurkeztu beharko dira (Kareaga Goikoa 52; eta Pagasarri kalea, San Migel), 08:30etik 14:00etara bitartean. Bestela, Internetetik ere aurkeztu ahal izango dira, Basauriko Udalaren webgunearen bitartez (www.basauri.eus).

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan xedatutako moduan ere aurkeztu ahalko dira eskabideak. Eskabideok, bestalde, erakunde autonomoaren lehendakariari zuzenduta egongo dira, eta aurkezteko epearen barruko data eta sinadura jaso beharko dute.

Basauri, 2018ko urriaren 8a.

ERAKUNDE AUTONOMOKO LEHENDAKARIA
Sin.: Asier Irigorri Basaguren